



AIZTONDORA EGUNA 11:00 ETATIK AURRERA

Bailarako preso, iheslari eta hauen senideei elkartasuna azaltzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte gaur Villabonan >3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-04-24**

VIII. URTEA 1983. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ADOLFO TANNENBAUM ARGAZKILARIA

«Munduaz dudan ikuspegia adierazten dut argazkien bidez»

TOLOSA Kataluniarraren 'Nire kamaratik mundura' erakusketa gaur irekiko dute Aranburu jauregian

ARGAZKIAK Afrikan, Hego Amerikan eta Estatu Batuetan ateratako 40 irudik osatzen dute erakusketa 4



Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketako sarituak atzo Anoetako Herri Ikastolan. ENERITZ MAIZ

SHAKESPEARE, DE LA VEGA ETA CERVANTES ESKUALDEAN IZAN DIRA

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA Eskualdeko hainbat ikastetxetan ipuinak irakurri eta entzuteko aukera eduki zuten atzokoan 2


Etorkizuneko herria nolakoa izango den argitzen hasi dira

IKAZTEGIETA Gipuzkoako Foru Aldundiak Hirigintza Plan Orokorra onartu berri du 5

KOLDO ALONSO MOTO GIDARIA

«Michelin Power Cup-en lehen hiru postuetan sartzea da nire helburua»

IBARRA Gaur Albaceten lehiatuko da Ibarra Racing taldeko gidaria, Yamaha motorrarekin 7



-50% -40% -35% -20%

LIKIDAZIOA

ERAKUSKETA ALDARAKOAGAIK

www.muebles-basoko.com

mueblesbasoko@yahoo.es



larrea auzoa s/n poligono 34, 2
20150 **billabona** gipuzkoa
tfn.: 943 692 965

Ipuinen labirintoan, irakurtzera bultzatuz

Liburuaren Nazioarteko Eguna » Ikastetxeetan gogoan izan zuten eguna. Hizki-Marrazki ipuin marraztuen lehiaketako sari banaketa Anoetan.

ENERITZ MAIZ

Atzo, apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen eta eskualdeko hainbat herritan gogoan izan zuten. Egun honetan, izen handiko hiru idazle hil ziren: Shakespeare, Cervantes eta Garcilaso de la Vega. Eta egun horretan bertan jaio zen, William Wordsworth idazlea.

Samaniegon X. Literatur Asteari agur esan zioten, irakurketa maratoiarekin. Laskorain Ikastolan, besteak beste, Lehen Hezkuntzan urte osoan zehar *Entzun eta irakurri, gozatu elkarririk irakurketa* kanpaina landu dute eta hamar hizkuntza desberdinetan ipuin zatiak entzuteko aukera izan zuten.

Uzturpe Ikastolan, Garbiñe Ubeda idazle tolosarrak *Mila ezker* saiakera liburuaren aurkezpena egin zuen. Ezkertasunari buruzko hausnarketa sakona egiten du eta ikasleek ikasturte honetan liburua irakurri ondoren, hamaika galdera egin zizkioten.

Hizki-marrazki ipuin marraztuen sariak banatuta Anoetako Ikastolan, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei, Benjamin Barandallak, ahozko tradizio-ko ipuinak kontatu zizkien.

Ondorengo sari banaketan, udal ordezkari eta teknikoak izan ziren eta baita zenbait guraso ere. Lehiaketara 114 lan aurkeztu dira eta hamahiru sarituak, liburuxka batean argitaratu dituzte. Sarituen artean, 8-10 urtekoetan: Laila Tarik, Ana Lekuona eta Aitor Amunarriz. 10-12 urte artekoan: Ekaitz San Sebastian, Naroa Itoitz eta Oihana Zubillaga eta Ane Haranburu. 12-14 urtekoetan: Jon Fernandez, Lide Ansa eta Itsaso Estanga eta Karen Jarimillo. 14-16 urtekoan: Ainara Etxabeguren eta Olaia Balda, Aitana Miner eta Olaia Etxeberria eta Ane Urkola eta Maialen Puras. Eta 17 urtetik gorakoan artean, Nerea Sanchez izan zen saritua. Aipamen berezia, Koldo Descalzoren lanak izan zuten.



Benjamin Barandalla ipuin kontalaria izan zen Anoetan. E. MAIZ



Garbiñe Ubeda idazlea izan zen Ibarren. HITZA



Laskorain ikastolan, ikasleak ipuin kontalari aritu ziren. HITZA



Samaniegon, irakurketa maratoia egin zuten. HITZA

Laburrak

Lilatoian ateratzeko taldea sortu nahi dute

ANOETA • Lilatoia emakumeen lasterketa da, martxoko lehen igandean Donostian egiten dena, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Datorren urteko Lilatoian ateratzeko taldea sortu nahi dute Anoetan. Horretarako, maiatzean hasi nahi dute entrenatzen, kirol monitore baten gidaritzapean, asetan behin. Zerbitzu hau Udalak ordainduko du, eta, beraz, partaidetentzako doakoa izango da. Izena kiroldegian eman behar da apirilaren 30a baino lehen. Izena ematen denean entrenatzeko egunik egokienak zeintzuk diren esan beharko da.

Festen azken loturak egiteko bilera, etzi

ANOETA • Herriko festetako bilera egongo da astelehenean, hilak 26, 19:00etan udaletxean. Bertan azken loturak egingo dituzte eta kartel lehiaketaren sariduna aukeratu dute. Jai Batzordeak dei egiten die herriko taldeei eta herritar orori bertan parte hartzera.

Festetan peoi lanak egiteko Udalaren deialdia

ANOETA • Herriko festetan kalea garbitzeko eta peoi lanak egiteko deialdia egin du Udalak. Lana maiatzaren 29tik ekainaren 7ra burutuko da. Langileei kontratua egingo zaie. Baloratu da Anoetan erroldatuta izatea eta euskara jakitea. Interesatuak izena eman beharko dute, udaletxean bertara agertuz edo 943-65 12 00 telefono zenbakira deituz. Epea maiatzaren 20a arte izango da.

Gaur Udaberriko Kontzertua Plaza Berrian izango da 19:30ean

ERREDAKZIOA

Gaur, Tolosako dultzaineroak, Buruhandi eta erraldoien konpartsa eta Musika Bandaren eskutik, Udaberriko Kontzertua izango da. 19:00etan Plaza Zaharretik kalejira hasiko dute eta 19:30erako Plaza Berrian izango dira bertan emaldia eskaintzeko. Lehenik eta behin, Tolosako Musika Bandak, *La Grande Evasion*, *Orpheus in the underworld*, *Haurrak ikasazue* eta *Cartoon* joko ditu. Ondoren, Musika Banda, Dultzainak eta erraldoien txanda izango da; *Aitziber eta Jon*, *Bailan Los Gigantes* eta *Polonesa* eskainiko dituzte Luis Mari Gartziairen zuzendaritzapean. Hurrengo emanaldia maiatzaren 29an izango da.

Iragarki laburrak

LANA

- **Ileapaintzailea.** Ibarraiko ilea-paindegi batek laguntzaile behar du. metxa2@yahoo.es. Deitu 609 79 27 87 telefono zenbakira.
- **Lana.** Emakume bat eskaintzen da lan egiteko arratsaldetan. Deitu 605 742 696 telefono zenbakira.
- **Zerbitzaria.** Tolosako kafetegi baterako zerbitzaria behar da. Larunbat arratsaldeetarako. Espe-

rientziaduna. Interesatuak deitu 680 10 39 59 edota 635 75 25 23 zenbakira.

GALDUTAKOAK

- **Kamera.** Argazki kamera galdu zen igande eguerdian Alegian. Zerbaite ikusi zuen edonork mezedez dei dezala 943 65 32 87 zenbakira.
- **Perikitoa.** Perikitoa, gorputz be-

dea eta urdina duena eta buru laranjaduna aurkitu dute Ibarren. Ja-beak dei dezala 609 47 30 81 telefono zenbakira.

SALGAI

- **Lokala.** Irurako Laskibar bailaran lokala salgai, N-1 errepidearen ondoan. 118m², 78.000 euro. Interesatuak deitu 645 72 19 47 telefono zenbakira.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



275 haur elkartu dira Berazubín

TOLOSA • Eskola Txikietako VIII. kirol topaketak ospatu zituzten atzo goizean Berazubín. 275 haur elkartu ziren bertan eta hainbat kirol egin zituzten eguraldi eskasari aurre eginez. Besteak beste atletismoa eta herri kirolak uzartu zituzten, hala nola, luzera jaurtiketa, lokotx biltzea eta zaku karrera lehiak ikusi ahal izan ziren. Tartean, hamaiketako egiteko atsedendaldia ere hartu zuten kirol topaketetako izarrek, hau da, Ikasleek. Eguerdian amaitu zen jaia. Ondorengo herrietako Eskola Txikiak elkartu ziren atzokoan: Errezil, Gabiri, Itsaondo, Berastegi, Ikaztegieta, Zizurkil, Lizartza, Bidegoian, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Berrobi eta Altzo. I.GARCIA

«Elkartasuna barne-barneraino iristen zaie; asko eskertzen dute»

MARGARI OLANO

Villabona » Gaur ospatuko dute Aiztondora Eguna. Errebote plazan hainbat ekitaldi egingo dituzte 11:00etatik aurrera.

ASIER IMAZ

Margari Olano Balerdi Villabonan bizi da. Mikel Ayestaran euskal presoaren eta Remi Ayestaran alkateorde erailaren ama da.

Zer da Aiztondora Eguna?

Bailarako preso, iheslari eta senideei elkartasuna adierazteko presatu den egun bat da, nahiz eta egunero adierazten zaigun elkartasun hori.

Senide bezala, zein da zuretzat duen esanahia?

Gizarteko sektore batzuk gurekiko duten elkartasuna oso handia dela kontu jakina eta ikusten den zerbait da. Horrelako jai batekin, zirkulu hori handitu egiten da.

Espetxeetan azken hilabete hauetan gertatzen ari denak berezi egiten al du ekimen hau?

Elkartasun egun hau noiz datoren ere kontutan hartu behar da. Senide batzuk 6 hilabeteko denboran ez dute oraindik aurrez aurreko bakar bat ere eduki. Egoera honetan asko eskertzen da horrelako ekimen bat. Beraiei barnean, neurriak asko zorrotz dizkiete; preso politikoei ez diete elkarrekin egoten uzten. Navalcarneron adibidez, bi hilabetez behin moduloz mugitzen dituzte eta bisita orduak aldatu dizkiete. Lehen hiru edo lau familia elkarrekin egoten ginen, orain berriz batek arratsaldez, bes-

teak goizez, larunbatean edo igandean... ez gara elkartzen inoiz. Bidaiek ere ezin ditugu elkarrekin egin, ordu desberdinetan izaten baititugu bisitak. Argi dago senideen arteko elkartasunarekin ere amaitu nahi dutela. Gobernuaren errepresio politikan beste urrats bat da, kasualitatea ez dena.

Hain zuzen, gaur aurkakoa egin-goz duzue.

Hori da. Gure artean elkartu, hitz egin eta ahal dugun hobekien pasa. Ondoren elkartasun hori espetxeetan zabaltzea tokatuko zaizue, ezta?

Mikelekin hitz egin dugu eta esan diogu bazkaltzeko oraingoz 140 lagun gaudela. Espetxeetik garrantzi handia ematen diete ekimen hau. Adibidez, Mikel atxilotu zutenean, 100 lagun plazan bildu zirela jakin zuenean, horrek indar handia eman zion. Elkartasun hori barne-barneraino iristen zaie.

Oroitzapenen eguna ere izango da ziurrenik zuretzat.



Remi bera, euskal preso eta iheslari politikoei elkartasuna emanaz ibiltzen zen. Guri oso barrura iristen zaigu. Momentu horretan gu elkartasuna ematen ari ginen eta orain jasotzen ari gara. Esanahi bikoitza edukiko du guretzat Aiztondora Eguna.

Laburrak

'El patito feo' ikusteko aukera bihar Topic-en

TOLOSA • A la sombra konpainiak ikuskizuna eskainiko du hilaren 25ean, bihar, Topic-en 12:30ean. Andaluziarrek *El patito feo* lana ekarriko dute Tolosara. Hans Christian Andersen-en lan ospetsuaren moldaketa ikusle guztientzat egokia dela jakinarazi dute Topic-etik. Ondorioz, helduek 7 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek 4.

AHTren obrak ikustera joateko deialdia

TOLOSALDEA • Abiadura Handiko Trenaren obrak ikustera joateko irteera antolatu dute bihar, hilak 25. Aramaiora gerturatuko dira eta Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak bertara agertzeko deialdia luzatu du. Horretarako gainera, autobus antolatu dute. Elkarlaneko kideek azaldu dutenez, 08:15ean irtengo da Santa Klaratik eta izena emateko zerrendak ohiko lekue-tan aurkitzen dira. Arrasate-Aramaiora arteko obrak ikustera joaten direnek 3-4 orduko itzuli bat egingo dute. Ondoren Arrasaten bazkaria edukiko dute zain.

Harizpetik oporretara joateko deialdia egin dute

TOLOSA • Harizpe jubilatuta eta pentsiadunen elkarrekin Fuengirolan oporrak antolatu ditu. 15 egun eta 14 gau igaroko dituzte. Maiatzaren 31an irtengo dira Santa Klaratik, 22:00etan. Bazkideek 520 euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek 526. Izena emateko orduan 100 euro jarri beharko dira. Horretaz gain bazkide txartela ere erakutsi beharko da.

Maiatzaren 1ean mendi irteera antolatu du Alpinok

TOLOSA • Alpino Uzturre Elkarrekin Maiatzaren 1erako mendi irteera antolatu du. Txangoa Gaintzatik hasi eta Lizarrusti mendatean bukatuko da eta Irumugarrieta (1.431m.) eta Putxerri (1.299 m) mendiak igoko dira. Autobusaren irteera Santa Klaratik 08:00etan izango da. Iraupena 6 ordukoa izango da. Bazkideek 6 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta bazkide ez direnek 8 euro. Ondorengo telefono zenbakira deitu edo e-mailera idatzi beharko da: 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Plaza Etxeberri JATETXEA

Zerbitzaria behar dugu 616 647 869

egin behar duen araberako 943 69 13 36 telefonokan !!!

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAK KOORDINATZAILER POSTURAKO LANGILE BAT BEHAR DU.

Kontuan izango da:

- Komunikabideetan eta kudeaketan esperientzia izatea.
- Euskalgintzaren ezagutza izatea.
- Kurrikuluma galtzaundi@galtzaundi.com helbidera bidali behar da.

Epea, maiatzak 14

E Elkarrizketa

ADOLFO TANNENBAUM Argazkilaria

«Oroitzapenik ez duen musika aukeratzen dut bidaiatzean»

Gizartea Argazkilaria kataluniarraren 'Nire kamaratik mundura' argazki erakusketa dago ikusgai Aranburun gaurtik ekainaren 12ra arte.

INIGO TERRADILLOS

Erakusketa berria dago gaurtik ikusgai Aranburu jauregian. Adolfo Tannenbaum Embeita argazkilaria, *Nire kamaratik mundura* izenburupean, bere bidaietan ataratako argazkien aukeraketa ikusi ahal da ekainaren 12ra arte. Argazkien bidez munduaz duen bere ikuspegia ezagutaraztearekin batera, bisitariengan sentsazioak sorrarazi nahi ditu.

Erakusketa nola deskribatuko zenuke?

Bisitatu ditudan lekuen adibide txiki bat da, koloreen ikuspuntutik antolatutako 40 argazki inguruk osatua. Nik munduaz dudana ikuspegia adierazten dut argazkien bidez. Bizitza berezia izan dut, nire sustraiengatik asko bidaiatzea egokitu baitzait, eta mundua ikusteko moduan eragin handia izan du horrek. Hala, nire ikuspuntua erakutsi nahi dut, eta horrez gain, jendearengan eguneroko bizitza erakusten duten argazkiek harri-dura puntu hori sortzea ere nahi dut. Izan ere, ni ere harrituta eta txundituta utzi naute argazkietan azaltzen diren une, egoera, leku eta pertsona horiek.

Zein helbururekin egiten dituzu bidaiak?

Bidaiatzearena odolean daramadan zerbait da. Gogoan dut, 14 urte nituela Jack Kerouac-en *On the road* (Bidean) liburua irakurri nuela, eta zera pentsatu nuen: «Ni bezalako bat topatu dut!». Bai profesionalki, bai eta pertsonalki ere asko atsegin dut bidaiatzea. Bidaia bat egin aurretik lurraldeaz informazio ugari irakurtzen dut, bertako jendearekin egotea eta bizitzea gogoko dut. Oro har, kultura berriak ezagutzea asko gustatzen zait.

Kulturen arteko nahasketa da zurea ere.

Nire ama oso gustura dago Euskal Herrian erakusketa jarri dudalako. Ni Bartzelonan jaio nintzen 1976. urtean, baina nire gurasoak Txilekoak dira. Bertatik alde egin beharra izan zuten Pinocheten diktadurarengatik. Nire amaren gurasoak euskaldunak, gernika-

rrak, ziren, eta Txilera jo beharra izan zuten Gerra Zibilarengatik. Nire aitaren aldeko aitona-amonak, berriz, alemaniarak ziren, eta Alemania Naziaren garaian Hego Amerikara alde egin zuten. Gerora Txilera bueltatu ginen, baina, 2001ean Bartzelonara itzultzea erabaki nuen. Beraz, lurralde askotakoa eta inongoa naizela esan daiteke. Horrek alde onak ditu eta baita txarrak ere, jendeak ez baitzaitu bere lurraldekotzat hartzen.

Bidaia bat hasten duzunean zer hartzen duzu kontuan?

Pertsona bakoitzak inspirazioa bere erara aurkitzen du. Irudiak asko erakartzen nau, baita musikak eta literaturak ere. Musikak beti izan ohi du oroitzapenen bat; esaterako, balada erromantikoa bat entzuten duzunean lehendabiziko muxua edota bikotea etorriko zaizu burura. Horregatik, nik bidaia berri bat egiten dudanean niretzat oroitzapenik ez duen musika aukeratzen dut, berriro musika hori entzutean bidaia horrekin identifikatzeko. Hori egitea asko gustatzen zait. Liburuekin ere gauza bera gertatzen zait.

Nora egingo duzu hurrengo bidaia?




Afrikara bueltatu nahi dut berriro, Tanzaniara, hain zuten. ACNUR-ekin errefuxiatuen kanpaleku batera joateko aukera dut, eta hara joango naizela uste dut. Bestalde, Japonian erakusketa bat jartzeko aukera ere izango dudala uste dut, beraz, bi gauza horiekin nago une honetan.

Orain arte egin dituzun bidaietatik eta ateratako argazkietatik kuttunen bat ba al duzu?

Zure bidearen bila izena duen argazkiak asko markatu nau. Bukacera ikusten ez den errepide luze bat da. Argazkian ikusten den haurra bezala, txikitatik gu ere ibiltzen hasten gara, eta ez dakigu bizitzan zehar zer deskubrituko dugun. Argazkiak nire lana eta nire bizitza ederki irudikatzen dituela esango nuke. Atakamako desertuan ateratako argazkia. Hori eta gainerakoak ikustera gonbidatzen dut jendea; ziur nago gustatuko zaizkiela.



Atakamako desertuan ateratako *Zure bidearen bila* izeneko argazkia, bere kuttunena.



Afrika, Hego Amerika edota Estatu Batuetara eginiko bidaietan ateratako 40 argazki inguruk osatzen dute erakusketa.

Ikaztegieta » Ekialdean 76 etxebizitza berri egiteko aukera aurreikusten du Planak, horietatik erdiak babesekoak.

IMANOL GARCIA

Ikaztegieta Plan Orokorri onarpena eman dio Foru Aldundiak eta aldatuta nagusia etxebizitzak eraiki ahal izateko 2.2 eremu berria zehaztu dela da, Ekialdean izeneko. Toki Alai tabernaren jarraian eta kiroldegiaren aurrean kokatzen da eta bertan 76 etxebizitza egin ahal dira, horietatik erdiak babesekoak. Horrez gain, aurreko Plan Orokorrean aurreikusita zeuden eta egin ez diren etxebizitzak kontuan hartuta eta beste eremu batzuetan egindako aldatuta araberako beste 24 etxebizitza berri egin ahal dira.

Eneritz Maiz Ikaztegieta alkatetik zehaztu duenez, «Udalean sartu ginenean Plan Orokorri hasierako onspena eman zion aurreko Udalak, baina bertan zehaztutakoarekin ez geunden ados eta aldatuta egin genituen».

Aldaketa horietan nabarmenak etxebizitzaren inguruan izan ziren. Aurreko Udalak 180 etxebizitza berri egitea aurreikusten zuen.

Eguneko Udalak aurrekoak hasitako Plan Orokorrean aldatuta egin ditu

Hain justu, Tolosa aldetik herriaren sarreran dagoen biribilgunearen ondoko etxeen atzean egin nahi zituzten etxebizitzak horiek. Eremu horretan ere kokatu nahi zuen eskolaren eraikin berria. Maizek azaltzen duenez, «azken urteetan etxebizitza berri asko egin dira Ikaztegieta eta 300 biztanletik 500 ingurura pasatu gara. Urte gutxi barru herria beste hainbeste handitzea ez genuen ikusten eta horregatik etxebizitza gutxiago egiteko aukera hobetsi dugu».

Gai horren inguruan herri batzarrak egin zirela azaldu du alkatetik eta bertan, besteak beste, eskola egun dagoen lekuan gelditzea eta etxebizitza berrien beharra ez zela hainbestekoa ikusi zen. «Herria zabaltzeko modu naturalagoa Legorreta aldera zela ikusten genuen eta 180 etxebizitza berri egin beharrean 76 etxebizitza egitea aurreikusten da, horietatik 38 babesekoak».

Proiektua Ekialdearentzat

Ekialdean eremu horretan etxebizitza berri horiek nola gauzatuko diren zehazten hasi behar dute orain eta horretarako herritarren partehartzea eskatuko du Udalak. Proiektu horretan zehaztuko da, besteak beste, babesekoak nolako-

Kiroldegi aldera zabalduko da herria Plan Orokor berriarekin



Ekialdera eremua kiroldegiaren aurrean dago, errepidearen bestaldean. Argazkian atzean, Toki Alai taberna dagoen eraikina ikusten da. HITZA

akizango diren eta zer prezio izango duten.

Etxebizitzetako dagokionez, beste bi eremutan ere aldatuta izateko aukera egongo da. Villa Maria edo L3 eremuan, Elizaren ondoko plaza eta tren geltokiaren artean dagoenean, 18 etxebizitza egitea aurreikusten da. Bi eraikin egitea posible izango da, bat 12 etxebizitzetako eta beste 6koa. 12 etxebizitzetako eraikinaren

behe solairuaren jabetza Udalarena izango da. Lokal horietan Haur Eskola jartzeko aukera ikusten du Udalak. Beste eremuan, 1.2 edo Seroretxe izenekoan, Villa Mariaren ondoan dagoena, sei etxebizitza egiteko aukera izango da.

Industrigune berriek ez Aurreko Udalak prestatu zuen Plan Orokorrean egindako beste aldatuta industriguneari lotuta

dago. Industrigune berri bat egitea aurreikusten zuen eta oraingo Udalak aukera hori ezeztatu du. Alkatetik azaldu duenez, «ez daberetzeko beste industrigune berri bat egitea». Aldaketa bakarra Benta 9. sektorea garatzeko aukera da. Horrela, jardueraren ekonomikoetarako kalifikatutako lurzorua 7,9 hektarea izatera iritsi ahal daiteke. Egun, 5,8 hektarea finkatuta daude eta 2,1 hutsak daude.

Foru Aldundiak Plan Orokorra onartzeko azken moldaketa bat egin behar izan zen, eskolaren handitzea gauzatzeko. Aurrera begira obra garrantzitsuenetako bat izango da eskola handitzearena. Hain justu, beste obra garrantzitsua udaletxe berriarena izango da, eskolaren ondoan egingo dena. Leku hori aurreko Plan Orokorrean aurreikusita zegoen, 1996an onartu zena.

berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak
hautatzeko probarako deialdia

PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN
EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean.
ORDUA: arratsaldeko 16:00etan.

BIZKAIAN
EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: EHUren Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko aularioan, 11. gelan.
ORDUA: eguerdiko 12:00etan.

ARABAN
EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIAREN Gasteizko egoitzan: Bizenta Mogel 6, behea.
ORDUA: goizeko 09:30etan.

NAFARROAN
EGUNA: maiatzaren 4an.
TOKIA: BERRIAREN Iruñeko egoitzan: Iruñeko monasterioa, 45. eskuineko eskalera, 13. ezkerre.
ORDUA: goizeko 10:00etan.

Probara curriculuma ekarri behar da

KANTXATIK

- Sebas Martinez, Trinketeko hautatzailea.
- Iritzia.

UROLA KOSTA BEREZIA:

- Zestoa Pilota Eskola.
- Elkarrizketa: Patxi Azkargorta.
- Posterra: Zestoako haurrek.
- Emakumeak pilotari.
- Erremontea Azpetiko eskolan.

Pilotazale, eman hauspoa etorkizuneko pilotariei.

Egin harpidedun!

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren euskarazko aldiakarian

Deitu telefonoz: **943-47 14 63**

Idatzi helbide elektronikoko honetara:
kantxatik@gmail.com

Jeiki abesbatza eta Sinfonietta Academica Orkestra entzungai

Leitza » Bihar 12:00etan emanaldia eskainiko dute elizan; Schubert eta Haendelen obrak interpretatuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Jeiki abesbatzak eta Sinfonietta Academica Orkestra emanaldia eskainiko dute bihar Leitzako elizan. 12:00ak aldera izango da herriko saioa.

Bi zati desberdin izango ditu musikaldiak. Hasteko Franz Schuberten lanak abestuko dituzte. Lainez, 18 urterekin idatzi zuen *2. meza, Messein G*, interpretatuko dute.

Bigarren zatian, Haendel-en *2 Coronations Anthems* edo *Antifonia*



Jeiki abesbatzak emanaldi ugari eskaini izan ditu Leitzako elizan. HITZA

nia abestuko dute: *The King Shall Rejoice* (Erregea harro sentitzen da zure garaipenarengatik). Esaldi honekin hasi eta 5. zatian *Allelujah* batekin amaituko da, *Mesiasen*

Allelujah baino lehenago idatzi zuen hau eta 21. salmoan oinarriturik dago. *Zadok the priest* antifonarekin amaituko dute biharko emanaldia.

Enpresa kudeaketaren inguruko ikastaroak Leitza

ERREDAKZIOA

Cederna Garalur elkarteak enpresa kudeaketaren inguruko hainbat ikastaro antolatu ditu. Hauek Nafarroako Mendialdean kokatuta dauden eta enpresa-kudeaketa hobetu nahi duten edozein sektoretako ETE-*ei* eta autonomo *ei* zuzenduta daude.

Denera lau dira eskaintzen diren tailerrak. Lehendabiziko biak maiatzean dira. Bata da: *Nire lanak ematen al dit mozkirik? Enpresako kostuen kudeaketa* izeneko eta bestea, *Fakturen eta kobrantzen kudeaketa*. Beste biak ekainean dira eta hau dute izenburu: *Errentagarria danire enpresa: nolauertu balantze bat eta Merkatuko kostuen kudeaketa*.

Saioak liburutegian izango dira goizez, 09:00etatik 12:00etara. Interesatuak Cederna Garalur elkarteko Zerbitzu Zentroan eman dezakete izena, goizez.

Aurrerakoek partida ugari dituzte jokoan

Leitza » Pilota eskolako kideak hainbat txapelketatan ari dira lehian; gaur eta bihar izango dituzte hitzorduak.

ERREDAKZIOA

Leitzako Aurrera pilota eskolakoek pilota partida ugari jokatu beharko dituzte asteburu honetan. Hasteko, gaur, Nafar Jokoen baitan, Infantiletan, Aurrera C-ko Julen Goikoetxea eta Mikel Erasok eta Ander Mendillorri C-koak izango dituzte aurkari. Iruñean 10:00etan izango da norgehiagoka. Maila berdinean, Aurrera B-ko Ander Eskudero eta Ander Garziarenak Mendillorrien kontra jokatuko dute Iruñean, 10:00etatik aurrera.

Kadeteetan, Aurrera A-ko Xabi Eraso eta Ibai Barberena Esteribarreko pilotarien kontra lehiatuko dira. Zubirin izango da partida, gaur 10:00etan. Aurrera B-ko Mikel Onsalo eta Ibai Gil-ek ere hitzordua dute gaur. Cantolagua taldekoen kontra ariko dira gaur 12:00etan Zangotzan.

Iruztzungo txapelketan, 09:30etik aurrera lau partida izango dira. Alde Batetik, Anartz Olano kadeteak Tolosakoen aurka. Bestetik, Jon Lezea alebinak Salaberriaren kontra eta Ander Gartzia-*renak* Lenitz Gatzagaren aurka. Azkenik, Joserra Aldaregi kadetea aterako da kantxara, Mikel Hermandorenakoari aurre egiteko.

Iruiritako emakumeen paleta goma txapelketan Iera Agirre eta Saioa Aristorena ari dira jokoan, eta gaur 16:00etan, Iruiritan bertan, partida izango dute. Elgetako txapelketak ere aurrera jarraitzen dute eta gaur eta bihar izango dira partidak. Kadeteen txanda izango da. Gaur 16:00etan Xabi Jaunarena ariko da jokoan eta bihar 10:30ean, Anartz Olano, Azkenik, Herrerako txapelketan, kadeteen mailan, Xabi Jaunarena eta Mikel Hermandorenaren partida izango da bihar 10:00etan.

Belabieta gimnastika erritmikoko taldea Gipuzkoako finalean

Ibarra » Gaur Belabieta kiroldegian B mailako eskolarteko txapelketa jokatuko da egun guztian zehar.

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean jokatuko den Bergaran gimnastika erritmikoko A mailako eskolarteko lehiaketa eta amateur federatuen bigarren fasea. Bertan, Belabieta taldeko hainbat kide Gipuzkoako finalerako sailkatu ziren. Infantil mailan Idoia Eceiza; kadeteetan, Miren Eceiza eta Maider Zabala; jubenil A mailan, Izaro Esnaola eta Garazi Egiguren eta jubenil B mailan, Irati Maritxalar eta Onintza Odrozola. Bestalde, jubenil B mailako taldea ere sailkatu zen.

Gaur, Ibarrako kiroldegian B

mailako eskolarteko txapelketa jokatuko da. Goizean 10:00etatik 14:00etara alebinak, infantilak eta benjaminak ariko dira eta arratsaldean, 15:30etik 19:00etara benjaminak taldeka nahiz banaka ariko dira. Guztira ehun eta gehiago gimnasta espero dira.

Belabietako eskolatik maila ezberdinetan, hainbat talde eta banakako aurkeztuko dira. Alebinetan, talde bat, eta Nerea Zinkunegi, Edurne Eceiza eta Irene Bengoetxea bakarlar *i* gisa. Infantiletan, beste talde bat, eta banaka: Celia Ortega, Laida Olazabal eta Maddi Beloki. Benjaminetan hiru talde eta banaka, Maialen, Alazne Iturbe, Laia Ortiz, Alaitz Uzkudun, Ibane Zinkunegi, Maddi Pagola eta Ane Calegain.

Belabieta Gimnastika Erritmikoko Eskolak «ikuskitum polit honetara» gonbidatzen du jendea.

Aresoko dantzari txikien saioa bihar Legorretan

Areso » V. Dantzari Txiki eguna ospatuko dute bihar Goierriko herrian eta bertan parte hartuko dute eskualdeko dantzariak.

ERREDAKZIOA

Aresoko haurrak bihar Legorretan ospatuko den X. Dantzari Txiki egunean parte hartuko dute. Egun guztian zehar hainbat ekitaldi izango dira Goierriko herrian, eta tartean, eskualdekoen emanaldia izango da.

Goizean, 11:00ak aldera dantzari guztiak bilduko dira Legorretako Korta eta Zapas Enparantzan. Ondoren desfilea egingo dute. Jarraian, 12:00ak aldera, Aresoko, Beasaingo Aurtzakako, Ordiziako Jakintza, Zaldibiako Iztueta eta Legorretako Irrintzi-Alai dantza

taldeek herriko auzoetan dantza egingo dute. Euskal dantzak izango dira protagonista Legorretan, biharkoan.

Eguedian, 13:00ak aldera, dantzari guztiak Enparantzan bilduko dira eta bertan dantza desberdinak egingo dituzte, besteak beste *Ikurrin dantza* eta *Aurreeskua*. Arratsaldean, antzerkia izango da. 16:30ean, *Pantxika txinparta, ederra* emanaldia ikusteko aukera izango da.

Ikasturte guztia dantzan

Azaroan hasi ziren dantza ikastaroekin eta dagoeneko biharkoaren hiru irteera egin dituzte. Irakasleak Aresoko bi neska dira. Guraso Elkartearen gustura daude, «oso ongi barneratzen ari direlako dantzak». Beste aldaketarik ez bada hurrengo saioa herriko festetan egingo dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

Kirolak » Ibarra Racing taldeko moto gidaria Michelin Power Cup txapelketan ari da lehiatzen aurten; gaur Albaceten lehiatuko da bere Yamaha motorrarekin.

ESTI EZEIZA

Motorra lagunik onena eta etsairik handiena du aldi berean Koldo Alonsok. 2006an hasi zen lasterketetan parte hartzen Ibarra Racing motoziklismo taldearekin. Orain, Michelin Power Cup txapelketan ari da korritzen, 600 zentimetro kubikoetan, hau da, 120 zaldikoetan, seriekoetan. Gaur zirkuito honetako bigarren proban lehiatuko da. Norgehiagoka Torrecijako zirkuitoan izango da, Albaceten.

Nola sartu zinen lasterketen munduan?

Betidanik ibili izan naiz motorrean, baina 18 urterekin erosi ahal izan nuen nire lehendabiziko motor handia. Probak egin ostean, serioago hartzea erabaki nuen, eta 2006an lasterketetan parte hartzen hasi nintzen. Hala, ordutik, motorretik jaitsi gabe nabil.

Ibarra Racing du izena zure taldeak.

Bai, 2006an izan hori jartzea erabaki genuen. Taldea hiru lagunek osatzen dugu. Alde batetik, auto rallyetan ibiltzen den Markox Landa dago, eta bestetik, Car Kross-etan lehiatzen den Jon Maritxalar. Landak gainera gaur bertan, Tolosaldean jokatu den Nañarri Rallyesprintean parte hartu ko du.

Denboraldi honetako hirugarren lasterketa korrituko duzu gaur.

Martxoan entrenamendu gisa lehen lasterketa jokatu nuen eta espero ez arren, podiumera igotzea lortu nuen. Ondoren, apirilaren 4an, Michelin Power Cupeko lehen proban lehiatu nintzen, Bartzelonan. Gaurkoari beldur pixka bat diot, izan ere, horrelakoetan ohikoa izaten da bertako jendea ere aurkeztea, hau da, zirkuitoa oso ongi ezagutzen duena, eta lehen postuak beraiek eskuratzea. Horregatik, zaila izango da podiumera igotzea.

Iaz laugarren egin zenuen txapelketa honetan, aurten zein da zure erronka?

Oraingoan hori hobetu nahiko nuke, eta lehen hiru postuetan sartu. Horrela, gainera, zenbait laguntza jasoko nituzke, eta garrantzitsua da hor sartzea. Oraingo, ongi hasi gara, baina ikusiko da.

Albaceteko zirkuitoak esanahi berezia du zuretzat?

2008ko apirilean, Albaceteko lasterketan txonkatila apurtu nuen eta urtebetez geldirik egon behar izan nintzen. Beraz, oroitzapenak



HITZA

«Gaurko lasterketan zaila izango da podiumera igotzea»

ekartzen dizkit honek, baina ez onak.

Aurten, aldaketarik somatu al duzu?

Maila mantendu egin da, bainakrisia dela eta, jende gutxiago ari da lehiatzen. Albaceteko proban, adibidez, 40 gidari izango gara, baina

«Michelin Power Cup txapelketan, lehen hiru postuetan sartzea da nire helburua»

«Nire abantaila da, motor hau jada zaharra izan arren, oso ongi ezagutzen dudala»

hau asko da. Aurrekoan, Bartzelonakoan 25 izanginen.

Abiadura lasterketa da, orain korritzen ari zarena.

Bai, hauek 20-25 minutoko lasterketak izaten dira. Zirkuitoaren arabera, baina 12-14 itzuli eman behar izaten ditugu.

Abiadura lasterketetan ez ezik, erresistentziakoren batean ere parte hartu duzu.

2007an Ducati etxeko talde batean sartu nintzen eta han erresistentzia munduan ibili ginen. Garai horretan, niretzat oso garrantzitsuak izan ziren Montmeloko 24 orduak egin genituen. Baina gero nire betiko Yamaha motorrarekin hasi nintzen korritzen.

Abiadura lasterketak nahiago al dituzu?

Bai, baina erresistentzikoak ere oso politak dira. 10-12 lagunen artean, talde lanean egiten da dena. Hiru gidarik hartzen dute parte, eta orduz ordu, aldatzen joaten dira. Tartean, mantenu lanak ere egin behar izaten zaizkio motorrari. Hala ere, gidari batek oro har nahiago du abiadura, adrenalina gehiago.

Zenbateko abiadura harrapatu dezakezue horrelako lasterketa batean?

600eko motorrek, 270 kilometro ordutan izaten dute muga. Valentziako zirkuitoan esaterako, abiadura hori harrapatuko dugu ziurrenik, zuzen oso luzeak baititu. Baina, Albacetekoan, 220ra iritsiko gara gehienez, zuzen gutxi ditu eta.

Korritzeko zeintzuk dira zuretzat baldintza egokienak?

Eguraldiari dagokionean, ezinbestekoa da euririk ez egitea. 20 gradu dira egokiak, errepidea beroa egon dadin. Zirkuito aldetik berriz, azkarrak gustatzen zaizkit. Hau da, ongi ikusten diren bihurtune handiak dituztenak.

Kirol arriskutsua al da motorrena?

Arriskua badago, baina ez handiegia. Benetan mina hartzeko zirkuito batean, oso zorte txarra izan behar duzu. Ni askotan erori naiz, baina mina, benetakoa, behin ba-

karrik hartu dut, Albaceteko proban.

Non eta nola entrenatzen zarete?

Zirkuitoetan ibiltzen gara. Gainera, lasterketetan hasi nintzenetik, errepidean ez naiz ibiltzen moto-

rrarekin, arriskutsuegia iruditzen zait. Horregatik, normalean, lasterketaren aurreko eguna aprobetxatzen dugu entrenatzeko. Zirkuitoak libre uzten dizkigute horretarako. Baina beste batzuetan, Paueko (Frantzia) eta Lleidako (Herrialde Katalanak) zirkuitoetara joaten gara.

Ekainean amaituko duzu aurten go denboraldia.

Martxoan hasi nintzen eta ekainean amaituko dut. Tartean, Michelin Power Cup txapelketan lau lasterketa korrituko ditut denera. Ekonomikoki oso garestia da hau, eta aurten bost lasterketetan parte hartzea erabaki dut.

Garai hauetan, babesleak aurkitzea zailagoa izango da gainera.

Bai gero eta zailagoa da. Udaletxetik ere zailtasunak ditugu aurten dirua lortzeko. Dena den, zortea izan dut eta lau laguntzaile ditut orain: Andoingo Azkain motoak, Tolosako TRT tailerra, Ibarroko Gurutze Karrozeriak eta Lekeitio-ko GG Team (Gune Gorria Taldea). Gainontzekoa nire poltsikotik jarri beharko dut.

Zure motorrak, zenbat kilometro egiten ditu urtean?

2006tik motor honekin nabil. Iaz esaterako, bederatzita lasterketetan hartu nuen parte, baina hori denboraldi bakarrerako asko da. 5-7 egiten ditut normalean.

Zenbaterainoko bizia dute lasterketako motorrek?

Nireak lau urte ditu, baina jada zaharra dela esan daiteke. Nirekin batera lehiatzen ari diren gidariek aurtengo motorrak dituzte, eta hauek 10 zaldi gehiago dituzte eta 10 kilo gutxiago. Nire abantaila da motor hau oso ongi ezagutzen dudala.

Egunkariaren
Eskertza ekitaldia

Gonbidapenak eskuratu ahal izateko, deitu 607 77 07 40 zenbakira edo igandean jaso, Euskalduna bertan, 11:00ak bitartean

Apirilak 25 goizeko **11:00**ean
Bilboko Euskalduna jauregian

UBEDA ANAIAK • GOSE • KATAMALO • AITOR GOROSABEL
MIREN AMURIZA eta MADDALEN ARZALLUS
DANTZA • HITZA • MUSIKA...



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Zizurkil.** Trapu Zaharra taldeak *Camping renove* antzezlanaren aurkezketako du Pedro Maria Otaño plazan 22:00etan, VIII. Antzerki Astearen baitan.

Dantza

■ **Tolosa.** Udaberri txiki eta Esbarte Sant Martiko (Torrelles de Llobregat, Katalunia) haurren emanaldia 18:00etan Lopez-Mendizabal plazan. Ondoren kalejira Plaza Berria, beste emanaldi txiki bat eskaintzeko.

■ **Villabona.** Auresku eta soinu zahar txapelketa Gurea aretoan 18:00etan.

Deialdiak

■ **Baliarrain.** Txekorjatea antolatuta dute maiatzaren lehen Atari Soro pilotalekuan 14:00etan. Prezioa 25 eurokoa da eta txartelak bihar arte izango dira salgai Zartagi jate-txe-aterpetxean.

■ **Hemialde.** Dantza Taldeak antolatuta, maiatzaren lehen, sardina jatea 20:00etan. Txartelak etzira arte salgai 15 eurotan (14 urtetik beherakoekin doan) Ostatu tabernan edo udaletxean.

■ **Villabona.** Aiztondora Eguna *Euskal Presoekiko Elkartzasunak* batzen gaitu lelopean Errebote plazan. 11:00etan diana; 11:30ean *Burdinen arteko herria* liburuaren aurkezpena; 12:30ean herri kirol apustuak (aizkora, sega, trontza eta korrika); 14:30ean herri bazkaria; 17:30ean haurrentzako jolasak; 19:00etan Kantu Jira.

Erakusketak

■ **Alegia.** Arkatz-ziriz eta boligrafo-gelez egindako margolanak zintzilikatu ditu Luis Mari Nuñez anotarrek Jubilatuen tabernan hilaren 30a arte.

■ **Tolosa.** Tradiziozko pertsonaia txinatar txobxongilo antzerkian era-

kusketa Topic-en, maiatzaren 31 arte.

■ **Tolosa.** Mikel Telleriaren artelanak GKO Galleryn, maiatzaren 1a arte.

■ **Tolosa.** Naturaldiak antolatuta duen *Biodibertsitatea* erakusketa ikusgai Zerkausion, hilaren 30a arte.

Lehiaketa

■ **Anoeta.** Festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatuta du Udalak. 200 euroko saria du. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira eta horretarako azken eguna etzi da.

Kirola

■ **Alegialdea.** III. Nafarri rallys-printa Amezketatik Alegiara, 15:00etan.

Musika

■ **Asteasu.** Kantu Jira 11:45ean Aitzondo elkartetik abiatuta herriko kale eta auzoetara kalejiran.

■ **Tolosa.** Tolosa Kantari Tonto kaleretik 12:00etan abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan zehar.

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Banda eta dultzainarien kalejira erraldoi eta buruhandiekin plaza Zaharretik, 19:00etan, eta ondoren Udaberri kontzertua plaza Berrian.

■ **Tolosa.** Mantisa taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *I'm not there* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalaretta 1. 943 67 36 49.

■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Janire Gofii Balerdi (Amezketeta).

Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



Urte askoan!

Goizeder (Villabona). Gaur urtebete. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



Zorionak zure lehenengo urtebetetzean!

Goizeder Imaz Mendizabal (Villabona). Egun zoragarri bat pasatzea opa dizu zure familia guztiak! Muxu asko printzesa!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak




bidali
opor
hauetako
argazkiak!

NORA
BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
edo HITZAren Tolosako edo Leitzaiko egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

HITZA aste santuko argazki lehiaketa



1. Saria

3. Saria



2. Saria

sonentza
kera

landet
b

kutik,